



## Trebakuntza 2008/3: ORDUAK NOLA IDATZI

Udal idazki askotan orduak oker idatzita ikusi ditugu. Orduak behar bezala idazten hasteko, hona hemen gaizki egindakoak zuzentzeko irizpide batzuk.

**OHARRA:** Asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

### OHIKO AKATSAK

1. *\*Bilera martxoaren 23an izango da, 9,00etan.*
2. *\*Batzarra ordubatan hasiko da, eta ordubietan bukatu.*
3. *\*Ekitaldia arratsaldeko seiretan hasiko da.*
4. *\*16:30etan hasi zen bilera, eta 18:15etan bukatu.*
5. *\*Udaletxearen ordutegia: 9.00 – 14.00.*
6. *\*Hamaikak laurden gutxietan egingo dugu batzarra.*
7. *\*Bilera luze samarra izan zen, zazpietaraino luzatu zen.*

### ZUZENKETAK ETA AZALPENA

1. Orduak zenbakiz jartzean, erabili **lau zifra eta bi puntuak**  
Ad. Bilera martxoaren 23an izango da, **09:00etan**.
2. Forma zuzenak hauek dira: **ordu batean eta ordu bietan**.  
Ad. Batzarra **ordu batean** hasiko da, eta **ordu bietan** bukatu.
3. Oro har, orduak deklinatzean, **-tan edo -retan bukaerak ez dira zuzenak**.  
Ad. Ekitaldia arratsaldeko **seietan** hasiko da (eta ez *\*seiretan* edo *\*seitan*).  
**ONDO DAUDENAK: hiruretan, lauretan, bostetan, seietan, zazpietan, zortzietan, bederatzietan...**  
**GAIZKI DAUDENAK:** *\*seiretan/seitan, \*zazpiretan/zazpitan, \*zortziretan/zortzitan...*
4. Orduak zenbakiz ematean, **minutuak deklinatu** behar ditugu.  
Ad. 16:30**ean** (=hogeita hamarrean) hasi zen bilera, eta 18:15**ean** (eta hamabostean) bukatu.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uema.org](http://www.uema.org)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95  
[bizkaia1@uema.org](mailto:bizkaia1@uema.org)

Done Petri 14, behea  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72  
[gipuzkoa2@uema.org](mailto:gipuzkoa2@uema.org)



5. Ordu tarreak idazteko, erabili **lau zifra, bi puntuak eta marratxoa tartean (espaziorik gabe).**

Ad. Udaletxearen ordutegia: **09:00-14:00.**

6. Orduak letraz idaztean, **ondo erreparatu deklinabideari.**  
Ad. Hamaikak laurden **gutxi(ago)tan** egingo dugu batzarra.

**ONDO DAUDENAK:** **hamar eta erdietan, hamaikak laurden gutxi(ago)tan...**

**GAIZKI DAUDENAK:** \*hamar eta erditan, \*hamaikak laurden gutxietan...

7. Denboraz ari garenean, **ez da noraino erabili behar, noiz arte baizik.**

Ad. Bilera luze samarra izan zen, **zazpiak arte** luzatu zen.

**OHARRA: Arauok idatziari bakarrik dagozkie.**

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu edota gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariekkin:

- Telefonoz: 943260372 (Imanol) eta 946279195 (Iratxe)
- Posta elektronikoz: [gipuzkoa2@uema.org](mailto:gipuzkoa2@uema.org) (Imanol) eta [bizkaia1@uema.org](mailto:bizkaia1@uema.org) (Iratxe)

Hurrena arte!

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uema.org](http://www.uema.org)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95  
[bizkaia1@uema.org](mailto:bizkaia1@uema.org)

Done Petri 14, behea  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72  
[gipuzkoa2@uema.org](mailto:gipuzkoa2@uema.org)